

KULTUR ANIZTASUNAREN VI. FOROA

2021.11.09

HEZKUNTZA, HERRITARREN PARTAIDETZA ETA GAZTERIAKO ALORRA
IRUÑEKO UDALA



TXOSTENAREN EDUKIA

INTRODUCCIÓN: DATOS GENERALES	2
APERTURA A CARGO DE FERNANDO SESMA, CONCEJAL DELEGADO DEL ÁREA	2
INTERVENCIÓN DE JOSEBA ARBAIZA, TÉCNICO DE PARTICIPACIÓN.....	3
DINAMICA: I PLAN DE DIVERSIDAD CULTURAL Y CIUDADANIA INCLUSIVA	5
Aspectos que dificultan	6
Aspectos que facilitan	7
Propuestas	7
BLOQUE DE COMENTARIOS Y APORTACIONES	8
CIERRE DEL FORO	10
GALERÍA.....	10



SARRERA: DATU OROKORRAK

Data: 2021/11/09

Ordua: 18:00

Tokia: Caldereriako aretoa

Udal-ordezkarriak: Silvia Velasquez (PSN) eta Mainer Beloki (EH Bildu) bertaratu dira.

Udal-alorrek: Mahaian, parte hartzen eta saioa gidatzen aritu dira Hezkuntza, Fernando Sesma Gazteria eta Herritarren Partaidetzako Alorreko zinegotzi ordezkaria eta Joseba Arbaiza eta Ainhoa Guelbenzu Alor bereko teknikariak. Zaloa Basabe (Berdintasuneko Alorra) ere bertaratu da.

Aurrez aurre egon diren entitateak (8)

- Morenada de los Andes (1)
- Diablada Urus Bolivia (2)
- Eskualde Etxeen Federazioa (1)
- Aproena (1)
- Casa de Galicia (1)
- Casa Chile (1)
- ASVENA – Alpargatika (1)
- Renacer Andino (1)
- Nafarroako Argentinarren Etxea (1)
- Espainiako Iparraldeko Brasildarren Elkartea (1)

Guztira 12 emakume eta 2 gizon bertaratu ziren, Alorreko teknikariak kanpo.

SARRERA, ALORREKO ZINEGOTZI ORDEZKARI FERNANDO SESMAREN ESKUTIK

Fernando Sesmak Kultura Aniztasunaren VI. Foroari hasiera eman eta bertaratuei ongietorria egin zien.

Aurten, esan zuen Fernando Sesmak, pandemiaren ondorioz Kultur Aniztasunaren Foroa joan den irailaren 7tik bildu ez den arren, Udaletik gai honen inguruan lan egiten jarraitu da. Halaber, Partaidetzako Alorreko teknikariek egindako lanaren balioa azpimarratu eta Alorrek eskaintzen dituen baliabide eta zerbitzuak erabiltzeko gonbita egin zuen, hala nola Zentro (buletina, aholkularitza juridikoa, aretoak...).



Ildo horretan, Alorrak garatu dituen ekintzen berri eman zuen:

- IRUÑA POLITA, COSMOPOLITA kanpaina Kultur Aniztasunaren Nazioarteko Egunaren kariatara. Maiatzak 21.
- Munduko folklore zikloa. Irailak 13, 14 eta 15.
- Iruñeko Kultur Aniztasunaren eta Herritartasun Inklusiboaren I. Plana. Egun diagnostiko-fasean.

Informazioa osatzeko, zinegotziak baieztatu zuen egun Plan hori dela Udala aniztasunari dagokionez egiten ari den lan nagusia, eta bi atal dituela: bata ikerketa-diagnostikoa da, eta bigarren faserako oinarria izanen da, hau da, planaren beraren garapenerako. Diagnostiko horrek Iruñeko gizarte osatzen duten kultura ezberdinen arteko elkarbizitza maila eta kalitatea aztertzea du xede. Inkesta baten bidez egin den atal kuantitatibo bat du eta beste atal kualitatibo bat eztabaida-talde bidez egina, herritarrekin eta udal-teknikariekin.

PARTAIDETZAKO TEKNIKARI JOSEBA ARBAIZAREN PARTE-HARTZEA

Joseba Arbaiza Herritarren Partaidetzako teknikariak Fernando Sesmaren parte-hartzea osatu zuen Alorrak garatu dituen ekintzak izendatuz:

- Dirulaguntza-deialdia kultur aniztasuna sustatzeko berriazko epigrafearekin.
- Lehiaketa eta argazki-erakusketa Arrazarengatiko Diskriminazioa Deuseztatzeko Nazioarteko Egunaren kariatara. Sortutako materiala Udalak eskola eta institutuetan antolatutako berriazko programa batean erabiliko da, zeinaren bidez jarrera arrazisten aurkako lana egingen baita.
- Elkarteen azoka, autobus-geltoki zaharrea, "Uniendo lazos" izenekoa.
- Harrera-ekitaldia Udaletxean Hispanitatearen egunaren kariatara.

Hemendik gutxira:



- Abenduaren 18an, Migratzaileen eguna dela eta, beste harrera-ekitaldi bat egingen da Udaletxean.
- Kulturartekotasuna lantzeko berriazko ikastaroak herritarren partaidetzako eskolan, hala nola, “Zurrumurrueen aurkako eragilea”, Zaska sarearen eskutik, eta “Desberdinen arteko komunikazioa pertsonak aintzatesteko eta ezagutzeko” izeneko ikastaroari jarraipena ematea.

Joseba Arbaizak, halaber, participa.pamplona.es webgunea erakutsi zuen, eta bertan kultura aniztasunaren fitxa nabarmendu zuen, bertan egiten diren ekimen guztiak partekatuko direla azaltzeko.

Azkenik, Kultur Aniztasunari eta Herritartasun Inklusiboari buruzko Planaren diagnostiko-fasean egin diren askotariko lantegi eta elkarrizketetan erabilitako metodologiari buruz aritu zen. Planarekin jarraituz orain beste fase batean sartu direla esan zuen, zeinetan herritarrei irekitako inkestak egiten ari baitira. Mila inkesta inguru egin direla zenbatu da, eta horrek diagnostikoaren barruan balioa ematen dio. Une honetan, lagina egokitzen ari da, izan ere, nahiz eta erantzunen ehuneko nagusia profil aniztetako pertsonena izan, 70 urtetik gorakoak falta dira.

Bere parte-hartzea bukatzeko Fernando Sesmari eman zion hitza eta azken horrek bertaratuak animatu zituen Plana aberasteko egiten diren ekimen guztietan parte hartzera.

Dinamikara igaro aurretik, Mainer Beloki Udaleko EH Bilduko zinegotziak hartu zuen hitza, eta adierazi zuen bere taldeak beharrezkotzat jotzen duela diagnostikoaren amaierako ondorioak atera baino lehen emaitzak elkarte-ehunarekin partekatzea eta eztabaidagune hau bezalako guneetan kontrastatzea ahalik eta adostasun gehien lortze aldera. Fernando Sesmak erantzun zuen gobernu-taldearen asmoa dela alderatzea, diagnostiko-fase honetan ez ezik, baita hurrengoetan ere, foro honetan ateratzen diren ondorioez gain barne-gaien batzordeak, alderdi politikoek, eta abar ateratzen dituztenak ere.



Argentina Etxeko ordezkariak hartu zuen hitza elkarteen artean inkesta hedatu dadila iradokitzeke, haren ustez ez baita nahikoa hedatu.

Ainhoa Guelbenzu partaidetzako teknikariak hitza hartu zuen zehatz-mehatz azaltzeko zein izan den inkestaren hedapen-plana; besteak beste zehaztu zuen, 7.000 mezu elektronikoko baino gehiago bidali direla, WhatsApp taldeen bidez hedatu dela, herritar aktiboen artean banatu dela, etab.

Morenada de los Andes elkarteko ordezkariak hitza hartu eta esan zuen komunikazio-arazoren bat egon dela bere kolektiboak ez baititu ezagutzen hasieran azaldu diren ekintzak, hala nola, Zitudadelako jaialdia eta aipaturako inkesta.

Fernando Sesmak esan zuen teknikariak ahalegin handia egiten ari direla kolektibo guztien datu eguneratuak lortzeko, ahalik eta pertsona gehienengana heltzeko xedez.

Azkenik, dinamizazio-teknikariei bidea eman zien dinamika bat egiteko.

DINAMIKA: KULTUR ANIZTASUNARI ETA HERRITARTASUN INKLUSIBOARI BURUZKO I. PLANA

Dinamikak helburu zuen herritar migratuekin lan egitea erraztu eta oztopatzen duten elementuak identifikatzea.

Horretarako panel bat jarri zen, eta haren gainean sortutako ideiak jarri ziren, idatziz emandako honako galdera hauetan oinarritutako banakako gogoeta labur baten ondoren:

- ***Zein dira Iruñean kulturen arteko bizikidetza errazten duten elementuak?***
- ***Zein dira Iruñean kulturen arteko bizikidetza oztopatzen duten elementuak?***
- ***Erraztu eta oztopatzen duen horretatik abiatuta: Nola hobetu dezakegu kulturen arteko bizikidetza Iruñean?***



Hauek dira partekatu zituzten gogoetak:

Oztopatzen duten aspektuak

- Desberdinkeria ekonomikoak. Horrek beste desberdinkeria modu batzuk betiketzea eragiten duten ondorioak ditu hainbat mailatan.
- Herritarren kontzientzia soziala. Irekiagoak izatea pentsatzeko, sentitzeko eta egiteko beste modu batzuk ulertzeko.
- Gizarteko botere-guneetan irudi adierazgarriak ez egotea.
- Kaleko eskarmentu falta. Pertsonak horiek artatzen dituzten profesionalak gehiago egon behar dute kalean, kanpoan gertatzen dena neurtzeko.
- Aniztasuneko elkarte eta kolektiboen konpromiso falta. Kolektibo eta/edo elkarrekin gehiago parte hartu behar dute, gonbidatzen zaien tokietan egoteko ahalegin gehiago egin behar dute, esaterako, eztabaidagune honetan.
- Pertsonak ez dakite gizartea nola egituratuta dagoen.
- Zailtasun handiak daude erroldatzeko, eta erroldarik gabe oso zaila da osasunerako, dirulaguntzetarako, etxebizitzarako, eta abarrerako sarbidea.
- Motibazio falta, askotariko desberdinkerien ondorioz, kolektibo hauetako pertsona askok eraikitzaileagoak diren gune hauetan parte hartzeko.
- Pertsona horien oinarria ezberdina da eta hortik abiatuta oso zaila da integrazioa.
- Tokiko ohiturak hartzea exijitzea. Integrazioa eskatzen zaie, baina trabak jartzen zaizkie integratzeko.
- Foro hau bezalako espazioek ez dute funtzionatzen. Arazo ugari daude eta oso irtenbide gutxi.
- Ezberdina denarekiko errespetu gutxi dago.
- Lankidetzaren eta komunikazio aktiboa falta da dibertsitate elkarte guztien artean.
- Hizkuntza arazo larri gisa identifikatzen da.
- Instituzioetara iristeko zailtasunak. Ikusezinak dira espazio horretan. Galdetzen zaie, baina ez zaie entzuten.
- Informatikarako sarbide gutxi, udal-baliabide faltagatik.



- Komunikazio etena. Guztiek ez dute informazioa eskuratzeko aukerarik.
- Instituzioetara iristeko zailtasunak, pandemiaren ostean larriagotu direnak.
- Ikusgaitasun eta sentsibilizazio falta gizartean.
- Administrazioek entzute aktiboa izatearen beharra, ez soilik beharrak artatzea.
- Ez dira egokitzapen-prozesuak lantzen.
- Gizarteak aldaketarekiko duen erresistentzia.
- Udalaren espazioetan eta baliabideetan desberdinkeria. Adibidez, Emakumeen Etxean.

Errazten duten alderdiak

- Gizartean sortzen diren espazioetan parte hartzea, hala nola, lan-sindikatuetan, elkarteetan, lan-ingurunean... Espazio horietan sortzen da bizikidetzeta.
- Hezkuntza, kultura, irekitasuna, besteari entzuteko gaitasuna.
- Gizartean identifikaturik edo ordezkaturik sentitzea.
- Duela 40 urtetik Iruñeak izan duen bilakaera positiboa. Kultura aniztasun handia dago eta bizikidetzeta sustatzeko lan egiten da.
- Iruñean bizi diren pertsonen askotariko jatorriak ikusaraztea. Adibidez, sanferminetako txupinazoa botatzen.
- Iruñeko gizartearen eta elkarte-bizitzaren aberastasunak integrazioa errazten du.
- Asoziazionismoa topagune gisa.
- Herritarren gehiengoaren elkartasuna.
- Eskubide berdintasunetik hasita jatorri- eta politika-desberdintasunak gainditzea.
- Migratzaileen erresilientzia.
- Elkarren arteko tolerantzia.
- Elkarteen artean sortzen den sarea elkar babestu eta laguntzeko.
- Elkarteen lana.

Proposamenak

- "Skolae" bezalako programak sortzea kultur aniztasunerako, Udalaren eskumenetara egokituta.



- Jolas- eta kirol-arlo guztietan parte hartzeko aukera ematea.
- Kulturartekotasuneko programak.
- Aktiboki parte hartzea kultur aniztasunari eta herritartasun inklusiboari buruzko planean, ez soilik ordezkaturik egotea.
- Hezkuntza eta gizabidea herritarrentzat.
- Interseksionalitatea Udaletxeko espazio estrategiko guztietan. Asmoa da dibertsitatea zeharka txertatzea. Horrek beti aberasten ditu begiradak.
- Inklusio bidezko integrazioa.
- Kolektibo horien errepresentazioari bidea ematen dioten kultura-bitartekariak.
- Hiri honetan elkarrekin bizi diren pertsona guztien ordezkariak gobernantza-guneetan
- Esku-hartzeetarako kaleko agentearen figura sortzea, eta agente horiek migratzaileak izatea.
- Udalak titulu akademikoei dagozkien eskumenak baliozkotzen laguntzea.
- Jatorri guztietako pertsonen inklusioa.
- Elkarteen barruan edukiak sortzea, hala nola, kulturarteko ikasgelak.
- Planak denboran jarraitutasuna izatea, pertsonak horretan sinistu eta parte-hartzea ez amaitzeko.
- Instituzioek aintzatespen-guneak sortzea, hala nola foro hau, parte hartzeko eta biziberritzeko.
- Kultura, komunikazioa eta gizartearen. Hainbat kultura daude gizartearen oinarrian, eta horien artean komunikazioa egon behar da, gizarteak iraun dezan.

Galde-eskeetara pasa aurretik Fernando Sesmak hitza hartu eta esan zuen bilerara bertaratutakoek itxaropen faltsuak ez sortzeko eta ulertzeko Udalaren konpetentziak mugatuak direla migrazioari dagokionez, eta horregatik duela plan honek kultura aniztasuna eta herritartasun inklusiboa izena.

IRUZKINAK ETA EKARPENAK



Atal honetan guztira 9 lagunek hartu zuten hitza:

EGILEA	ESKU-HARTZEA
EH Bilduko zinegotzia	Planari buruzko itxaropenak desberdinak dira Udalaren barruan. Bere iritziz, plan honen inguruan egiten ari den guztiaren helburua da iraganeko akatsak ez errepikatzea, adibidez, aurreko urteetan beste autonomia-erkidego batzuetatik iritsitako pertsonekin egindako akatsak. Ordezkatzen duen talde politikoaren ustez plan hori askoz ere anbizio handiagokoa da, eta haratago joan nahi dute eskumenak dituzten alderdi guztietan. Planak ez du aniztasuna ardatz izanen, eskubideak baizik. Inoiz ez da integrazio-planik egin; beraz, inoiz ez da integrazio-politkarik egon.
Casa Chile	Planak guztion arteko bizikidetza hobetu behar du, bertako edo beste jatorri batzuetako pertsonak bereizi gabe. Hor dago, haien ustez, akatsa, eta horregatik espazio honetan ez dago askotariko pertsonarik, hala nola dibertsitate funtzionala duten pertsonak, auzoko elkarteak eta abar.
Morenada de los Andes	Udalari eskatu zion antolatzen diren kultur ekitaldien bidez integratzen laguntzeko. Halaber, ekitaldiak kalean oztoporik gabe egiten uzteko eskatu zuen. Duela gutxi bizi izan duten esperientzia bat kontatu zuen, berriro gerta ez dadin Fernando Sesmak erantzun zion: Herritarren Segurtasunean eginen dute kontsulta, kontatutako esperientzian zer gertatu zen jakiteko.
Asvena - Alpargatika	Desberdintasun sozial nabarmenak daude, eta horrek zaildu egiten du parte-hartzea. Integrazioa gizartearen oinarrian egon behar da. Esan zuenez, kolektiboak hainbat arrazoi direla medio funtsezko baliabiderik ez duten pertsonendako euskarriak dira, hala nola adingabeak eskolatzeko.
Herritarren Partaidetzako Alorra	Udalak ahalegin handia egin du pandemian laguntza behar izan duten pertsona guztiei laguntzeko eta bertan egoteko. Kolektibo edo elkarteak Udala iristen ez den tokietara iristen direla adierazi zen, eta horrek balio handia du. Positiboa da.
Argentina Etxea	Espazio bakoitzetik onena ateratzeko asmoz, garrantzitsua iruditzen zitzaien lehen plan hori babestea, akatsak dituen arren.
Brasil	Plaza de la Cruz BHilko adibidea eman zuen, non beste jatorri batzuetako pertsonak joaten diren beren herrialdeaz hitz egitera, gauza daitezkeen jardunbide egokien adibide gisa. Parte hartzeko eta eraikitzeko konpromisorik ez dagoela errepikatu zuen.



Aproena	Interseksionalitatea funtsezkoa da. Udala zeharkakoa da eta zeharkakotasun horretatik egin behar da plana.
Argentina Etxea	Kultura ez da soilik gastronomia eta dantza, eskema hori apurtu behar da. Kultur aniztasuna askoz handiagoa da. Txikitik handirantz egin behar da lan.

FOROAREN AMAIERA

Fernando Sesmak Foroan bertaratu ziren guztiei eskerrak eman zizkien, eta aipatu zuen ekarpenak aintzat hartu eta landuko direla aniztasunaren arloko partaidetza ahalik eta hobekien gauzatu dadin.

IRUDIAK

